

ORIOKO

EUSKAL ALDIZKARIA

KarKara

14. zenbakia. 150 PTA. 1992ko urria

14A



Aurten bai !

TXOMIN

ARRAINDEGIA

Eusko Gudari, 42 Tfnoa: 83 27 47



LIZASO

ALTZARIAK

Eusko Gudari, 46 ■ 83 07 84
Aita Lertxundi, 6 ■ 13 33 01



Eusko Gudari, 33 Tfnoa: 83 39 20

URANGA BURDINDEGIA

EUSKO GUDARI 7
TFNOA 831236



Irudi Zentroa
Kale Nagusia, 17

Ezkontzako erreportaiak

*Eska itzazu eguna eta ordua
Argazkiak*

Zarautz

Tfnoa: 13 30 03

GURE TXOKO

FABERNA

ARITZAGA KALEA

Udalaren dirulaguntzak errotuluak euskaraz jartzeagatik

- Udalak kostuaren % 50a ordaintzen dio errotuluaren testua euskara hutsez jartzen duen dendarari.
- Gehienez ere, 30.000 PTA ematen ditu errotulu bakoitzeko. Adibidez, errotuluaren kostua 50.000 PTAKoa baldin bada, Udalak 25.000 PTAKo dirulaguntza eskaintzen du; kostua 60.000 PTAKoa baldin bada, 30.000 PTA ematen ditu; baina errotuluak 80.000 PTA balio badu, Udalak ematen duen diru-kopurua ez da 40.000 PTAKoa, baizik eta 30.000 PTAKoa.
- Errotuluan izena edo abizena baizik agertzen ez denean, ez da dirulaguntzarik ematen. Adibidez: "ARANTXA" jartzen duen errotuluak ez du dirulaguntzarik, baina "ARANTXA OINETAKOAK" jartzen duenak, bai.
- **Eskaera nola egin:** behin errotulu berria instalatua dagoenean, bete Udalean INSTANTZIA bat, erantsi honi errotuluaren instalazioaren faktura eta entregatu Orioko Udaleko Euskara-Zerbitzuan.

AURKIBIDEA

KarKara
aldizkaria

Lege-gordailua:

SS 346/90
ISSN 1132-1105
Tirada: 700 ale

Herriko Plaza, 1
20810 ORIO
Tfnoa: 83 15 27

Erredakzio-taldea:

Marisa Arruabarrena
Miren Etxeberria
Jabier Gaiton
Ana G. de Txabarri
Ana Iturain
Iñaki Iturain
Eli Manterola
Nere Manterola
Jabier Zabaleta

Kolaboratzaileak:

Manu Etxeberria
Maurizio G. de Txabarri
Anjel Lertxundi
Patxi Oliden

Azken orrialdeko marrazkia:

J.R. Salsamendi

Argazkiak:

Arantxa Aroztegi
Jabier Gaiton
Ana G. de Txabarri
Jabier Zabaleta
Kristina de Miguel

Inprimategia:

Bizker (Usurbil)

Salmenta-lekuak:

Iturain Liburudenda
Ontza Liburudenda
Alustiza Estankoa
Tragoak Taberna
Il Gelato
Oriogi

- 5** Herrian galdezka: *Zer esango zenuke arraun-denboraldiari buruz?*
- 6** Herriko kontuak
- 10** Kirolak
- 12** Erreportaia: *Aurten bai !*
- 14** Iritzia: *Txirrita Donostian. Anjel Lertxundi*
- 15** Bertsoak
- 16** Elkarrizketa: *Ibon Urbieta, Oriotar olinpikoa*
- 18** Denetik piska bat
- 21** Kontu zaharrak: *Garai bateko txalupak (I). Patxi Oliden*
- 22** Azkena



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

PUBLIZITATEA

KarKara

Herriko Plaza, 1
20810 ORIO
Tfnoa: 83 15 27

**1992ko
publizitate-prezloak**

Modulo bat 1.000 PTA
Bi modulo 2.000 PTA
Hiru modulo .. 3.000 PTA
Lau modulo 4.000 PTA
Sei modulo 6.000 PTA
Orrialde erdia 8.000 PTA
(9 modulo)
Orrialde osoa 15.000 PTA
(18 modulo)
Azalbarua ... 18.000 PTA

☞ **Prezio hauek zenbaki
baterako balio dute.**
Urtean hamar zenbaki
argitaratuko ditugunez,
zenbaki guztietan beren
publizitatea egin nahi
dutenek % 10eko
deskontua izango dute
prezio hauen gainean.

GU2BI

sukaldeak
beinugelak
logelak

Balieneros, 10 Tfnoa: 47 12 01 Donostia
Estropalar, 10 Tfnoa: 83 34 54 Orio

ASEGURUAK

CCL

CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.

JUAN LOIDI AZKUE

Aritzaga, 3 -1 Telefonoa: 83 11 90 ORIO

MAPFRE, S. A. - Aseguruak

TALAI, S. M. - Aholkulariak

Eusko Gudari, 44 A beheko ORIO

taberna - kafetegia

GABON

eusko gudariak
tfnoa: 83 06 09

banderila goxoak
hotzak zein beroak
ogitartekoak ere
ez dira nolana hikoak

**Bertan
egindako
opil eta ogiak**



IL GELATO

helatuak eta kruasanak

San Nikolas 17 TFNOA 131747

ertza

USAINDEGIA

HERRIAN GALDEZKA

Zer esango zenuke arraun-denboraldiari buruz?

Aurtengo denboraldia bukatzeaz dagoela, zenbait oriotarri iritzia galdetu nahi izan diegu gure traineruak lortutako emaitzei buruz. Horretarako honako galdera hauek egin ditugu:

- 1.- Zer irudituz zaizu aurtengo Orioren denboraldia?
- 2.- Kortak, beteranoak kendu eta gazteak sartzean, ondo egin al zuen?
- 3.- Zer esango zenloke San Juango bati?



Idola Lazkano
16 urte

- 1.- Traineru guztiak berdintsuak dira, baina azkenean Kontxa gurea izan da.
- 2.- Ondo, nik uste dut gazteei oportunitate bat eman behar zaiela, beteranoek beren garaian izan zuten bezela.
- 3.- Galtzen ikasi behar dela.



Juan D. Idigoras
30 urte

- 1.- Kontxa irabazi eta gero oso ona, baina jendeak espero zuena baino kaskarragoa.
- 2.- Ondo, txalupa indartu egin zen eta arraunketa hobeto egin zuten.
- 3.- Lujanbitori ez dela pertsona.

Luis Seguroia
65 urte

- 1.- Oso ona, Kontxako bandera irabazi dugu, eta oso ona.
- 2.- Bera da maisua, nik ezer ezin erakutsiko diot, baina asmatu zuela uste dut.
- 3.- Pakean jarraitzeko.



Maria J. Lertxundi
45 urte

- 1.- Oso ona, Kontxa ekarri dugu hasieran oso ondo ibili ez baginen ere.
- 2.- Ondo, nik gazteei oportunitatea eman behar zaiela pentsatzen dut.
- 3.- Galtzen ikasi behar dela.



RAMIRO

ARGAZKIAK

Eusko Gudar, 9 ☎ 83 10 40

PATXI

HARATEGIA

Telefonoa: 831837

DONIBANE

opil-okindegia

ABESLARI ORIO

BOLLOAK ETA PASTELAK

ARTISAU KALITATEA NAHI
BADUZU ZATOZ GURE
DENDARA

URAITZ

USAINDEGIA

KIROMASAJA

ESTHETICIEN

ENDAIA 3 ☎ 83 18 97

HERRIKO KONTUAK



Iñaki epaimahaiaren zorianak jasotzen Andoaingo Udaletxean egindako ekitaldian

KARKARAKo kide batek Rikardo Arregi Kazetaritza-Saria irabazi du

Iñaki Iturain KARKARAKo kideak Andoaingo Udalak urtero antolatzen duen Rikardo Arregi Kazetaritza-Sari garrantzitsua irabazi zuen gure aldizkarian argitaratutako artikulu batengatik. Rikardo Arregi Sariak Euskal Herri osoan euskaraz argitaratutako kazetaritza-lanik onenak saritzen ditu, lau sail desberdinetan. "Herrietako aldizkariak" izeneko sailean eman zaio saria KARKARari. Saria irabazi duen artikulua KARKARaren hamargarren zenbakian publikatutako "Oriotarrak eta soldaduzka" izeneko erreportaia izan zen. Epaimahaiaren iritziz, "erabakiorra izan da saria ematerakoan egileak artikulu berean gaiari buruzko datu ezberdinak trebetasunez erkatu eta herriaren meneko idazkera egoki batez azaldu izana, irakurgai gisa oso lan interesgarria tajutzea eta landutako gaiari tratamendu egokia ematea". Sari-banaketa uztailaren hasieran egin zen. Berrehun mila PTAKo saria Iñaki Iturainen artikuluari eman bazitzaion ere, epaimahaiak aipamen berezia egin zion KARKARA aldizkariari bere kalitateagatik eta Orioko herriari eskaintzen dion produktu onagatik.

Udaletxea berritu egin da

Orioko Udaletxea, zenbaitetik, bere itxuragatik, «Corte Inglés» izenez ezagutzen duena, berritu egingo da guztiz.

Udal-Arkitarktoak egina du dagoeneko Udaletxe berriaren proiektua eta, aidanean, hurrengo urtean hasi litezke berrikuntza-lanak. Proiektua ikusi dutenek esaten dutenez, balkoi-metrotan galtzen duena, dotorezian irabaziko du edifizio berriak. Hurrengo aletan emango dugu honi buruzko informazio gehiago.

2005. urteko Oriori buruzko lana amaitu- ta dago dagoeneko.

PROSPEKTIKER
Erakundeak aurkeztua du dagoeneko Udalean azken hilabete hauetan egiten ari-tu den estudioaren txostena. Honen aurkezpen publikoa urrian egingo da oraindik izendatu gabeko egun batean.

Txostenak berrehundik gora orri dituenek, honen laburpen gisako bat argitaratuko du Udalak herritarrei estudioaren emaitzen berri emateko.

Orio's Shop boutique

moda gaztea

EUSKO GUDARI,17 TELEFONOA: 83 12 44

Udalak Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala onartu du Anibarko Porturako

Irailaren 25ean egin-dako ohizko bilkuran Udal-Plenoak lehen onarpena eman zion Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualari Anibarko Portuari.

Anibarko Portua inguruko lurren jabeekin egin-dako negoziazioen ondorioa da orain onartu berri den aldaketa hau.

Inpaktuko estudioa Motondon

Motondoko zonaren ordenamendu-proiektuari buruzko inpaktuko estudioa egingo du EKOS enpresak Orioko Udalararen aginduz. Estudioan jasoko da Motondon egin nahi den ordenamenduak zonako ingurugiroan izango duen eragina.



Orioko arrantzale zaharrek Karmengo eguna ospatu zuten

Karmen egunean Gipuzkoako marinel zaharrei Donostian eskaintzen zaien omenaldian Orioko arrantzaleek parte hartu zuten aurten ere. Goiko argazkian ikus ditzakegu joan zirenetako batzuk, mezatik ateratzerakoan.

Xabier Sukiak "Bertsolari gazteentzako XVI Lizardi Saria"n bertso onenetako bat bota zuen

Irailaren bostean Zarauzko Antoniano zinean "Bertsolari gazteentzako XVI Lizardi Saria" jokatu zen eta bertan bi oriotar aritu ziren: Ibai Esoain eta Xabier Sukia. Azken honek botatako ondorengo bertsoa jaialdiko onenetakotzat hartua izan zen:

Kotxe barruan, blok batera,
elkarriketan gabiltza,
etorkizunaz zuzendurikan
elkarrenganako hitza.
Bertsolaria izan nahi nuke,
ospetsua, ahal balitza,
egunen baten aurkitzen badet
ate horrentzako giltza.

DORRONSORO

JANARIDENDA

ABESLARI, 3

TELEFONOA 83 09 37

ION PINTAKETAK

Kanpokoak eta barnekoak

Abeslari kalea, 1-3. esk. ☎ 83 09 37 Orto

Luis Cisneros Diputazio-ko Ingurugiro Departamenduko Zuzendari izendatu dute

Andorran eskolak ematen urte batzuk pasa ondoren, Oriola bueltatu eta gutxira, Gipuzkoako Diputazioan Ingurugiro Departamenduko Zuzendari izendatu zuten uztailan Luis Cisneros.

Luis, izatez, maisua da eta orain dela zenbait urte Udalean PSOEko zinegotzia izan zen.

Kargu berria hartzean, mahai gaineko gaien artean berak ondo ezagutzen duen eta Orio zuzenean ikultzen duen gaia aurkitu zuen: Motondokoa. Gai hau dela eta, jakin dugunez, egina du dagoeneko bileraren bat edo beste Udaleko ordezkariekin.



Patxi Olidenen artikulua arraunari buruz

Patxi Oliden, KARKARAKo kolaboratzaileak arraunari buruz dituen iritzia biltzen dituen artikulua argitaratu du «ELHUYAR Zientzia eta Teknika» aldizkariaren azken zenbakian, iraillekoan. Artikuluan, besteak beste, honako gaiak jorratzen ditu: gaur egungo arraunketa-teknikak, arraunak bere ustetan izan beharko lituzkeen neurriak, zlabogak, traineruak grabitate-zentrua non behar duen, etabar.

Aldizkariaren zenbaki horretan bertan Oria ibaiari buruzko erreportai interesgarri bat ere badago: «Oria, negarra darion ibai (eta II)». Erreportala J.L. Teresek egin da eta uztailako zenbakian argitaratu zen beste baten jarraipena da.

Oriotarrak UEUn irakasle

Uztailaren bigarren hamabostaldian Iruñean urtero antolatzen diren Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) ikastaroetan bi oriotar aritu ziren zenbait klase ematen: batetik Eba Gaztañazpi, Historiako Sailean eta, bestetik, Maria Luisa Loidi, Soziologiakoan.

Benito Lertxundiren diska berria

Hogei urtetan egindako abestiak biltzeko garaia iritsi zaio Benitori. Uda honetan egindako kontzertuen ostean, udazkenean, bilduma moduko diskoa osatzeari ekingo dio, eta urte amaierarekin batera, Benitok, ohizko lanen ildotik, letra eta doinu berriez bigarren bat egiteko asmorik ere baduela plazaratu du.

ARGI-GAIK

elektrizitatea

argi halogenoak

Iturbide, 11

Carmen

ARRAINDEGIA

tfnoak: 83 05 37 83 33 71

ALT XERRI

Jatetxea

Telefona: 83 07 62

Garmendia

aseguru-agentzia

☎ 83 44 66

Taberna-Jatetxea

KOLON TXIKI

Herriko plaza, 4

☎ 83 00 44 13 20 26

Talai-Mendik haur- rrentzako pelikulak emango ditu igande arratsaldero

Talai-Mendi, Mendi-Elkarteak bideo-pelikulak eskainiko ditu herriko umeentzat bere lokalean. Pelikulak igandero izango dira (Talai-Mendik mendiko irteera duen Igan-deetan ezik, hauda, hilean behin ezik) eta 16:30etan hasiko dira.

Pelikula guztiak euskaraz izango dira.

Orioko Zine-Klubak pelikulak proiektatzeari utzi zionetik herrian somatzen zen hutsunea bete nahi du Talai-Mendik emanaldi hauekin. Proiektu berri hau martxan jarzeko Udalak pantaila handiko telebista bat eta bideo bat erosi du.

Bideo-emanaldi hauek irailaren 26an hasi ziren eta umeek ikusi ahal izan zuten lehen pelikula «Batman» izan zen.

Urrian zehar emanaldiak larunbatetan izango dira Talai-Mendik igandeak okupatuak dituelako (Kilometroak, Nafarroa Oinez, mendiko irteera...)

Bestalde, hilean behin gazteentzako pelikulak eman nahi ditu Talai-Mendik. Hauek larunbatetan izango dira gaueko hamarretatik aurrera.

Goiko Kaleko Festak urriaren hasieran izango dira

Urriaren bian, ostirala-ekin hasi eta asteburu osoan zehar, ospatuko dira Goiko Kaleko Festak.

19:30etan emango zaie hasiera festei txupinazo eta buruhandiekin.

Aktibitateen artean, larunbatean 16:30etan egingo den «Goiko Kaleko IV. txirindulari igoera» azpimarra genezake. Igandean haurrak izango dira protagonistak.



Maria Sagrario, amonak hasitako lanaren jarraitzaile

Ekin Euskarari !

Uztailaren 17tik 26ra bitartean Orion izan zen **EKIN EUSKARARI** erakusketa.

Erakusketak eskaintzen zuen aukera aprobetxatuz, Orioko udalak omenaldia eskaini zien Maria Maestrari eta Don Xotero apaizari gerra ondoko urte zailenetan ere euskararen alde egindako ahaleginagatik. Biei plaka bana ematea zen asmoa, baina Don Xotero ezin izan zuen berea jaso, gaixorik zegoelako. Maria Maestrari zegokiona, berriz, bere biloba Maria Sagrariok jaso zuen

Kirolak

iTZiAR

Eusko Gudari, 23

☎ 83 31 03

ORIO

ITURAIN okindegia

Ogia, bollitoak,
egunkariak eta
KARKARA

Aritzaga

ORIO

K2

KIROLAK

1992: urte olinpikoa oriotarrantzat

Orion ere olinpikotzat jo dezakegu aurtengo urtea. Sekula ez bezelako gertakizunak eta garaipenak izan ditugu aurten gure herrian kirolaren alorrean.

Apirilean Euskal Herriko txirrindulari Itzulia Oriotik abiatu zen eta Orlo bi egunetan Txirrindulari festa handia izan zen. Bertan izan genituen munduko ia txirrindulari onen guztiak. Uztailan Frantziako Tourra Oriotik pasa zen bere lehenengo etapan eta gainera Orioko gaina izan zen Tourreko lehen mendate puntualea.

Arraunketara pasata berriz, malatzean bateletan Euskadiko Txapelketa irabazi zen, ekainean trainerriletakoa. Arraun olinpikoan sekulako domina pila eskuratu zituzten oriotarrek Espainiako Txapelketa Legutioko urtegiaren, herriak San Pedro festak ospatzen zituen bitartean.

Uztailan Ibon Urbietak Bartzelonako Joku Olinpikoetan izan zen arraunean. Ibonek dominarik lortu ez bazuen ere, Juan Luis Amilibiak egindako ontzietan errumanlarrek bost eskuratu zituzten.

Irailaren hamahiruan Orioko traineruak Kontxan bere hogeltasagarren bandera irabazi zuen, bederatzi urteko lehortearen ondoren, eta herri osoak ikaragarritzko ongi etorria eman zien estropalariak, oriotar gehienok bizi garen artean ahaztuko ez dugun egun batean.

Sei egun beranduago, irailaren hemeretziaren, Orioko Futbol Taldeak bere lehen partidua jokatu zuen erregionalean, azkenekoa jokatu zenetik berrogeitamar urte baino gehiago direnean. Herriko zaharrek diotenez 36.eko gerraz geroztik ez baita Orion erregionaletako partidurik jokatu. Biharamonean talde horretatik sortutako Imanol futbolariak bere lehen gola sartzen zuen Errealarekin, bere taldeari garaipena emanez, oriotarren urte olinpikoa borobildu nahian bezala.

Amilibia, Olinpiadetan garaile

Pasatako uztaila-abuztuko egunetan Kataluniako Joku Olinpikoetan bagenuen oriotarrok parte hartze ona izateko mutil bikaina, Ibon Urbietak, alegia. Baina ez ziren aurretik ateratako kontuak, tamalez, nahi bezala suertatu.

Ez zen, ordea, dena galera izan oriotarrantzat Banyoleseko urtegi zoragarrian. Han bait zegoen ordurako denbora luzez izerdia isurla zuen gure herriko ordezkari bat. Juan Luis Amilibia untzigilea aurreko urtetik estropada-eremu olinpikoa

eratzen eta egokitzen ibilia zen. Uztailaren 26an arraunketako proben lehenengo egunean jaso zuen saria, prestaketa guztiak (balizak, untzira-lekuak, epaileen untziak, etabar) batere akatsik gabe bait zeuden. Aste-bete geroago sari hura "urre" bihurtu zen, berak egindako untzietan Errumaniako selekzioak emakume eta gizonenekoek bost domina eskuratu zituztelarik. Gizonenekoan lemazaindun laukoan urrezkoa eta lemazaindun bikoan brontzea; eta emakumezkoetan zilarrezko dominak zortzikoan, scull bikoitzean eta laukoitzean.



Zorionak Juan Luis!

ERRUSTA
taberna

Kriston bokadillok!!

Koasta
Taberna

Lasaitasuna
eta
giro ona

Erregionaletakoa ekipoa atera du Orioko Futbol Taldeak

1978ko abuztuaren bostean Orioko Futbol Taldea sortu zenetik mutil asko izan dira infantiletan eta jubeniletan futbolean ibili direnak eta azken urteotan neska batzuk ere bai. Klubetik ateratako bi mutil Errealean dira gaur egun, Imanol Alguacil, lehenengo mailan, eta Joseba Agirre jubeniletan. Baina urte guzti horietan ez da ekiporik izan erregionaletan. Aurtengo ekatzean aldaketa batzuk izan ziren direktibari eta Pedro Fernandezek zuzentzen duen batzordeak erregionala ateratzea erabaki zuen. Jende bila hasi eta izan duten problema bakarra mutil batzuk kanpoan utzi beharra izan da, gehiegi zirelako.

Clemente entrenatzaile dagoela, Zarautzen jokatzen zuten lau mutil ekarri dira zarautzarren presioari muzin eginda, eta Itsas Ondo jatearekin diru laguntzarekin, hogeiasei mutileko ekipoa osatu da 92-93 denboraldiari aurre egiteko erregionaletakoa bigarren mailan. Orain arte bertan 650 sozio dauzka klubak eta beste hiru ekipoa, bat neskena, nahiz eta hau osatzeko kanpotik ekarri behar duten jokalaririk asko, eta beste bi mutilek, bata kadetetan eta beste jubeniletan.

Lehen partidua irailaren hemeretziaren, larunbata, arratsaldeko bostetan jokatu zen Orioko Antilla izeneko zelaian eta zeinek jokatuko eta sanpedrotarrekin. Holako partidua historikoa bati dagokion bezala sekula baino jende gehiago joan zen futbolera eta emakume baten aginduetara, arbitroa neska izan bait zen, oriotarrek 4-0 irabazi zieten sanpedrotarrei, oso partidua ona jokatuz.

Lehenengo minutuetatik hamar mutilekin jokatu bazuten ere, bat kanpora botata, horiz jantzitakoek sekulako jipoia eman zieten morezkoei.

Partiduko izarra Xabier Ibarbia izan zen, hiru gol sartu bait zituen, Jaimek buruz sartutako aurrenekoaren ondoren. Lauak gol bikainak izan ziren eta Antillara bildutako jendea itxaropenez atera zen futbol zelaitik, lehenengo denboraldi honetan bertan mailaz igo eta datorren urtean erregionaletakoa lehenengo mailan jokatzeke.



Hamaikakoa

(ezkerretik eskubira eta goitik behera)

Xabier Ibarbia
J. M. Alguacil
Santos Agirre
Juanjo Rubio
Ramon Errasti
Jon Abaurrea
Jaime Colado
Jon Amilibia
Rogelio Perez
Ibon Ubegun
Teodoro Alonso

EROSLE
AUTOZERBITZUA



ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA
MIXTOA

SOLARIUMA
PERFUMERIA

San Nikolas, 2. Tfnoa: 83 31 70

Aurten bai !

Bederatzi urtez zai egoteaz gain, ezin izan genuen estropada bukatu eta segidan gure poza eta nerbloek osatzen zuten korapilo estua askatu. Luzeak, oso luzeak egin zitzaizkigun erreklamazio ondorengo minutu haiek. Beldurra eta egoneza azkenean alaitasunarekin nahastu ziren. Iraileko bi igande ahaztezinen kronika duzue hau, eta oriotarrok gara argazki nobela honen protagonistak.



Donostiako badia benetan ederra da, baina irailean ederragoa egiten da estropaden ikuskizunarekin. Aukeran dauden lekuetatik onena hartzea ez da lan erraza izaten. Azkenean traineruak nola hala ikustea da asuntoa. Hain grina handiarentzat nahikoak izango ote zenbait toki?

Guztiori txuri geratu zitzaigun aurpegia. Ze arrao gertatzen zen! Denok gaidezka, denok urduri, irrati bat eskuetan zeramanarengana hurbildu nahian. Baina, nork irabazi du Bandera? Begiak behera begira, kezkatu denok. Inork ez zuen handik aldegin nahi. Poliki-poliki kaiako arranplan jendea biltzen hasi zen: hori-larrosa jantzien kolorea, ilunagoak marru eta kantak, baina borrokara iritsi gabe.





Oriotarrak bakarrik
geratu ginen gure
poza eta
Banderarekin.
Gainontzekoa
soberan zegoen.
Estropalariak etorri
zirenean, denok bat
egin genuen. Irailaren
hamahirua gure
eguna zen.

Hemen dituzue,
bazkaldu ondoren,
lasai eta zoriontsu.
Irrifarra eta algara
dira nagusi eta ez da
gutxiagorako.
Ez bait da bat, ez
bait dira bi, ez eta sei,
HOGEITASEI bait
dira!



Arratsalde osoan
aritu ziren kotxeak
bozina joka herrira
sartzen zirenean.
Zazpirak aldean,
autopista azpian utzi
behar ziren jada
tokirik ez zegoelako.
Nahiz eta euria ere
hasi, Orioko plaza
txaparaino bete zen.

**KAIA
JOLASAK**

ORIOKO PROMOZIOAK I, s.l.

2, 3 eta 4 gelatako etxebizitzak
merkatal lokalak eta garajeak

kala, 9 tfnoa: 8 3 4 1 4 4 Orio 20810

IRITZIA

Txirrita Donostian



Anjel Lertxundi
idazlea

MAKINA bat sagardoaldi izan da Txirrita hil zenetik. Seguru nago, ordea, oso seguru ere, Txirrita bera zela Donostian ikusi nuena irailako aurtengo estropadan. Jende arte bulosoan Aquarium-etik gora, bere ohizko brusa beltza ezagutu nuen, hainbeste alkandora hori, more eta arroxen artean hain nabarmen. Ordu-rako hamarretako ederra eginda egongo zen Aieteko Munitto sagardotegian, baina ez zitzaion bapo edanaren alderorik antzematen: Astiro zihoan eskaileretan gora, ezertarako presarik ez eta guztirako astia duen gizonaren planta patxadatsuan.

Atzetik nihoakion, seko liluratuta aukera aparta hura neukalako Txirrita handia ikustekoa. Baina, halako batean, bandera handi bat astindu zuten nire aurrean. Aupaorloka. Mekaguenka hasi nintzen ni eta ez, noski, banderaren eguzki kolorearengatik, banderak Txirritaren bizkar oparoa izkutatzen zidalako balzik. Errita egin nion zaletuari. Baina hark, bandera kemen berriz astinduz:

-Lujanbiotarra da!- ohartu gabe, bere zaletasunaren itsumenean, Txirrita, Lujanbio apelidua eraman arren, Emanikoa zela, eta ez pasaitarra.

Zaletuak bere oihu eta antsiak sosegatu eta bandera astintzeaz utzi orduko, galduta neukan Txirritaren arrasto guztia jendetzaren artean.

Irudipenak, lasaitu nintzen neure kabutan. Nola izango huen, ba, Txirrita?

Berehala ahaztu nintzen bertsolari handiarekin. Ez nuen hartarako neke handirik hartu behar izan. Txirritarekin gogoratzeko nengoen, ba, ni! Ez zen

berehalakoan allegatu trainerua bere balizara...

Ez dago gauza aspergarriagorik mundu guztiak ezagutzen duena kontatuz egoskortzea baino eta ez naiz hasiko kontatzen ondorengo festa. Bakarrik aitor dezadan ez dela oso abila izan behar jakiteko plazan egon ginenen konplizitateak elkartuko gaituela hemendik urte askotara ere.

-Neu ere han ninduan!

Egon ez zenak, berriz, berak jakingo du zergatik ez zen egon.

Behin etxean, eguneko gorabeherak kontatzen ari nintzela familiakoei, Txirrita ikusi izana ere adierazi nien. Txanpainari egotziko zioten senideek, ezker-eskuin mugitu zidaten- eta burua, galdetuz bezala: Total eginda al zaude?

Ez dut, ordea, txanpaina inoiz izan gustoko edari. Joan nintzen neure liburutegira, zabalduta nuen Txirritaren bertso bilduma eta han hasi nintzen zerbait argituko nuelakoan. Orriak pasa eta pasa, halako batean aurkitu nuen froga, garbi uzten zuena Txirrita Kontan egona zela iragan irailako estropadan:

*Biyak batian balizan buelta,
arraun kolpia zorrotza,
lendabiziko zein etorri zan
etzan juzgatzen erreza.*

Demostratu nahi lukeenak Txirrita ez dela 1992ko Donostiako estropadan egon, demonstratu beharko luke, baita ere, nola arraio deskriba zezakeen Txirrita emaniarrak hain ondo eta zorrotz bera hil eta handik berrogeitamasei urtetara gertatuko zen zerbait.

URBAZTER

Aseguru eta bidai agentzia

San Nikolas kalea, 8

☎ 13 33 14

Indar GYM

— Gimnasioa —

Katxas jarri nahi baduzu,
zatoz guregana!

BERTSOAK

Kontxako 26. bandera irabazi dugun urte honetan ezinbestekoa iruditu zaigu txoko honetara ere arraunlariak ekartzea, batetik ondo merezla dutelako eta bestetik Orloko bertso-paper zahar la guztietan gaia arrauna delako.

Fabian Loidik, "Zubi-Mutur" ezizenez, 1933 urtean egindako bertso hauetan Inazio Sarasua "Arratola" eta Paulino Arrillaga pasaltarraren arteko norgehiagoka azaltzen zaigu hasieran, Inazloran garalpena kontatuz noski. Ondoren "Txokolate"ren estropada bat eta urte hartako traineruko kuadrillaren hazainak.

Oharra: Loidiren idazkera bere horretan utzi dugu. 12 aukeratu ditugu, baina 24 bertso dira.

Sarasua'tar Inaki
ludi guziak ba-daki
arraunean da izaki,
Zarautz, Irun da Tolosatikan
banderak ditu ebaki,
talua jaten ba-daki
arraunean bai egoki
Sarasua'tar Inakik.

Itxason naiz ibayian
bide motz eta luzian
nagusi zera arraunian;
Euzkadin diran onenarekin
neurru zera legian,
danak alkarren antzian
zure batelak aidian
utziyak ditu atzian.

Gora Sarasua'tarra
gizon bulartsu azkarra
Kantauriyako izarra;
Paulinok zion: Betoiz nigana
gauza dan gizon azkarra
kantari zagon ollarra,
moztu diozu kalparra
taluk ba-du indarra.

Ori da etsai astuna
Arrillaga artu dezuna
jan du orrek babarruna,
indarrez ba-du zu alako bi
trebea, gerru biguna,
iritxi zaigu eguna
aitortu behar dezuna
Euzkadi'ko txapelduna.

Ontzi azkarra Pasaitik
berialaxe argatik
Arrillaga zan aurretik;
biratik laister jarri zitzaion
Inaki bere ondorik
indar aundiya batetik
birika onak bestetik...
Paulinon festak egin dik.

Bigarren jo aldikuan
Paulinok bere musuan
odol tantorik etzuan;
amas estuka iritxi eta
jausi zan batel barruan
Oriyo'kuak orduan
ba-zeukan gatza besuan
ta arraunak jaso zituan.

Batzuek dute itz egin
Txokolate ez da gauza pin
bere oltamar urtekin;
neurketa bat izango ba'lu
naiz Sarasua berakin,
maixuak ikasleakin
egin ezkeru alegin
emango luke zer egin.

Tolosa'n daukat goguan
Txokolate birakuan
zakarrak galdu zinduan;
egun berean Paulinon marka
ontzera nai zendun Juan,
Arrillagak nai etzuan
Txokolate zuk orduan
origi erantzun zenduan



Oriyotarra naiz eta
gora jasuz kopeta
jo biar det gaur tronpeta;
Paulinok orain beste batekin
artu nai ba' du paleta,
Inazio zu gordeta
or daude Txokolate eta
Ramon Solaberrieta.

Txalopan ere kuadrilla
bialdu degu abilla
Pasai arruaren billa;
Domingo Beltzak emen zemakin
oso gaztedi txirtxilla
nai ba' du izan dedilla
argala eta debilla,
Pasai utzi du ixilla.

Ez gendun jende gordiña
marka borratu eziña
suertian izan ba' gila;
"Emen gatzotik" ukabillakin
oju genduen egiña
eta azkenean jakina
gatzte ayen atsegiña!
guria zan ikurriña.

Gora Mitxelena zarra
gora Manterola azkarra
Sarasua ta Arrillaga;
Itzao, Azkue, Lopetegi ta
Lino'tar biko trebea
Etxeberría, Abaurrea,
Iru Zumeta batea
a ze nolako taldea!

HARAGIA GUSTORA JAN
NAHI BADUZU EROS EZAZU...

Kepa Loidi

harategia urdaitegian

Pelotari, 1 Tfnoa 83 25 65



ORRAZKERAK

AITA LERTXUNDI, 22
TFNOA. 83 12 61

Oriotar Olinpikoa

Udaldiko oporraldiaren ondoren Bartzelonako Olinpiadetan izan den gure herritar Ibon Urbieta arraunlari "handiak" elkarrizketa bat eskaini digu. Nahiko urduri azaldu zaigu, bukaeran batipat, eta asperen eta gorritasun batzuk ere ihes egin zitoten galderetako batzuk entzun ondoren. Hara hemen egindako galderak eta emandako erantzunak.

ELI MANTEROLA

KARKARA: Orain Olinpiadetatik etorri berri zarenez, esango al zeniguke zer suposatu zuen Espainiaren alde jokatzek?

Ibon Urbieta.- Espainiako talde batean jardutean badakugu min txiki bat barman, jakina, guk nahiago bait genuke Euskal Herriko ontzi batean atera eta Euskadi errepresentatzea, baina hau ezinezkoa da guretzat eta gainera ez dago gure esku, guk ezin dugu ezer egin, gauzak horrela daude momentuz eta konpondu bitartean horrelaxe jarraitu beharko dugu. Guk egin ez dezakeguna ongi irudi-tzen ez zaigula eta ez joatea da, Euskal Herriko kirola galtzen utziko bait genuke. Oraingoz, horrela da euskal kirola ezagutarazteko modu bakarra, eta egunen batean gauzak aldatzean poz handia izango da guretzat eta noski gu ere askoz gustorago jardungo gara.

K.- Zergatik daramazu ikurriña arraunlari itsatsia?

I.U.- Barruan daukaguna azaltzearen batipat. Jarriko ez bagenu gauza bat azal-

duko litzateke eta akaso jendeak pentsa lezake hori bakarrik dela ontzian dagoena, eta nik zerbait gehiago badagoela azaldu nahi nuke. Hortik aurrera bakoi-tzak atera ditzala bere konklusioak, arazoren bat ote den edo zer den.

K.- Planteamendu edo entrenatzeko erarik egokiena jarraitu duzue la uste al duzu ADO planaren barruan?

I.U.- ADOn akats asko egongo ziren akaso, ez dakit asko ala gutxi, baina dudarik gabe horrelako plan bat jarraitzea oso positiboa da. Horrela zen modu bakarra nik uste, orain artekoa ikusita behintzat, estatuan ez bait zegoen jenderik prestakuntza on batekin, base handi batekin, eta orduan beharrezkoa zen; orain jada egin dago eta hermendik aurrera, guk fase hori pasata, guretzat orain ez litzateke beharrezkoa izango, baina hasi nahi lukeenak hortik pasa beharko lukeela iruditzen zait, hortik edo etxean



horrelako lanak eginez, eta etxean horrela jardutea oso zaila da.

K.- Tasmanian lortutako dominaren ondoren emaitza hobeak espero al zitezkeen? Zer gertatu zen zure iritziz?

I.U.- Jakina baiez, guk askoz gehiago espero genuen. Urte hartan zilarrezko domina lortu eta bi urte gelditzen ziren Olinpiadetarako, biok oso gazteak izanik eta orduantxe hasiak seriooki entrenatzen esperantza handiak izan genitzaizkeen, eta nola ez, genituen. Ez dakit zer gertatu zen, gauzak okertzen hasi ziren, bi urtetan zuzendu nahian jardun ginen, baina ezin izan genuen.

K.- Nolakoa izan da jendearen harrera zurekiko Olinpiadaren ondoren? Zuk espero zenuena izan al da?

I.U.- Jende gehienak ondo hartu nau herrira etortzean, badira batzuk, "betiko txotxoloak", baina orokorrean esker oneko jendea izan da. Espero baino harrera hobeak izan dit. Une hartan neu ere dezepzionaturik nengoen eta nahiago nuen ezer ere ez egotea, ahaztea, baina pasa eta gero poza ematen dit errezibimendu hori jaso izanak. Denek gehiago espero zuten, baina, ezer lortu ez izanaren penarik handiena neronek daukat, eta eskerrak eman nahi nizkileke momentu guztietan apoiatzen nauten guztiei.

K.- Zer asmo dituzu, orain arteko eran jarraitu behar al duzu?

I.U.- Orain arteko moduan, horrelako kontzentrazioekin eta etxetik kanpora jarraitzeko asmoekin buka-

Kontxako bandera lortu izanak garrantzi handia izango du Klubaren etorkizunean

ELKARRIZKETA

tu dut, baina lehen esan bezala, base bat badaukagu lau urtetako lan honekin eta hemendik aurrera etxean entrenatzea litzateke kontua. Dagoeneko pentsatu eta hitz egiten ere hasia naiz. Nere asmoa klubeko lagun batekin entrenatzea da. Hasiera batean Euskadiko Selektzioan aritu eta gero enbarkazio hau estropada internazionaletan probatzen uztea eskatzea litzateke, Euskadiren izenean, eta udara aldera, pena merezi duela iruditzen bada, mundialera arte jarraitzea. Horretarako, klubaren iritzia beharko genuke, dena dela ikusi egin beharko da hutsune hori hemen sentituko ote den ala ez. Klubarentzat ere inportantea litzateke aurrera jarraitzeko asmoa izatea, ongi gabiltzarenaren seinalea bait litzateke, eta ezin hobea klubarentzat bi orlotar mundialean izatea.

K.- Zer soberan, zer faltan?

I.U.- Soberan; onena zein den demostratzeko estropadak. Faltan; zenbaiten lepo gainean burua.

K.- Zer iruditzen zaizu Oriok izan duen gorakada azken bi urte hauetan eta nolako etorkizuna ikusten diozu?

I.U.- Kortak disziplina eta lana ekarri du, hori izan da bere formula. Bera etorri zenean jendeak bazekien nolako entrenadorea zen eta nolako emaitzak lortu zituen eta jendea izugarizko ilusioarekin entrenatzen hasi zen. Lehengo eran, itota zeuden psikologikoki, ez ziren jartzen, eta nahiz eta berez klubean zegoen kuadrilarekin emaitza hobeak lortu ahal izan, zeuden bezala, jo eta ez zuten emaitzik lortu azken urteetan, eta bazirudien ez zela inoliz lortuko. Esperantza galdua zuten eta Korta etortzean piztu egin da. Kontxako bandera lortu izanak zer ikusi handia izan-

go du Orioko etorkizunean. Irabazi izan ez balitz etorkizun beltza iragarri izango niokeen neronek, jende asko bait dago urte askotan gogor jardun dena eta akaso uzteko asmotan edo dudan dabilena, eta orain oso zaila izango da batek edo bestek lan guztia bertan behera uztea.

K.- Jakin dugu oraingoz neskei laguntzen ari zarela entrenamendu garaian, zer asmo dituzu?

I.U.- Orain arte klubean ez zegoen inongo segimendurik neskei entrenatzeko garaian. Ez dakit noren partetik baina akats batzuk egon dira. Neskek diotenez ez

zieten kasurik egiten eta marginaturik sentitzen ziren. Nik neure iritzia azaldu diet, beraiek ere ez zirela gehiegi saiatzzen, alegia.

Tira-bira batzuk egon dira gure artean, bakoitzak bere iritzia eman du eta bi aldeetatik serio hasia pentsatu dugu, beraiek beren ahaleginak eginez eta ni beraiekin jardunez, la Orioko arraunean dinamika bat lortzen dugun eta nesken arrauna aurrera ateratzen dugun.

K.- Ahoz-ahozko betiko zurrumurruei buruz zer?

I.U.- Orion asko sentitzen da arrauna, eta ia gehienak noizbait arraunean ibiliak direnez, dena dakitela uste dute.

Nik, lehenbizi, beraien artean ados jartzeko esango nieke. Moilan biltzen direnean, batzuk bata eta besteak bestea kritikatzeko jarduten dira eta bakoitzak esaten duena egitea ezinezkoa denez, hobe lukete diskusio hori kanpora atera baino lehen guztiak bildu eta diskutitu, eta zerbait garbi aterarazko, momentu horretan klubean buru dagoen pertsonarengana azaltzea.

K.- Bukatzeko zer esan nahi duzu?

I.U.- AUPA ORIO!!!



"Kortak bi urte hauetan bere maisutasuna erakutsi du"

SARASUA ERRETEGIA

Berezitasunak: -Arrai zopa
-Arrai eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29
83 00 05
Tfnoak: 13 25 32

BORDATXO

Taberna

☎ 13 30 14

DENETIK PISKA BAT



EZETZ EZAGUTUI! lehiaketako irabazlea Maria Isabel Etcheberria Ikarán izan da oraingo honetan. Argazkian bere ahizparekin azaltzen da Itsas Ondo jabetxearen ate ondoan.

Oraingoan karta gutxi heldu zaizkigu erre-dakziora, badirudi aurrekoetan azaldutakoak baino zailagoa zela. Baina, ez larritu hemendik aurrera errezagoak jartzen salatuko gara.

Hementxe duzue erantzuna zuzena:

Maria Manterola, Arantxa Uranga, Trinidad Murglondo, Anjeles Eizagirre, Marilo Santamaria, Edurne Zabala, Milagros Aramendi, Inazi Monterola, Antonita Larraza, Lutxi Elizalde, Arantxa Sarabia, Maria Pilar Etcheberria, Manolita Alzpurua, Segundita Lertxundi, Juanita Segurola, Maria Paz Larrañaga.

Zorionak

Orioko Arraun Elkarteari

Atal honetan gure zorionik beroena eman nahi diegu Orioko Arraun Elkarteak kide guztiei, egindako lanari esker Kontxako bandera berriro Oriora ekartzea posible izan delako. Batez ere arraunlariak, beraien esfuerzoari esker egun paregabea eskeini zigutelako oriotar guztioi.

Zoriotxarrak

Kutxako sukurtsala itxi dutenei

Gure ale honetako zoriotxarrak Kutxari zuzenduak doaz, Aita Lertxundi kalean kokatua zegoen sukurtsala itxi egin bait dute. Arrazoi ekonomikoak izango dituzte agian, baina ez dute kontutan izan auzo honetan bizi den jendea eta oraindik etortze dagoena, egiten ari diren etxe horiek bukatzen dituztenean.

Hemendik aurrera Kutxaren zerbitzuak jaso nahi dituzten guztiek goiz pasa joan behar dute Eusko Gudari aldera.

LIZASO

**ERLOJU eta
BITXI DENDA**

Kala, 3

Tfnoa: 83 10 90

AURRERA

disco-taberna

ORIO



ARKAITZ Taberna

Abeslari Kalea, 4
Tel. 83 16 57
ORIO

**Ogitartekoak, kaxuelitak eta
Orioko pintxorik hoberenak**

DENETIK PISKA BAT

UDAN HILDAKOAK

Martzial Lopetegi Del Puerto, ekainak 5ean
Modesta Alzueta Ataondo, ekainak 11n
Inazio Ibarguren Etxezarreta, ekainak 12an
Jose Maria Etxeberria Seguirola, uztailak 24ean
Igor Manterola Olariaga, abuztuak 30ean

UDAN JAIOTAKOAK

Gara Falconet Dorronsoro, ekainak 8an
Andrea De Diego Romero, ekainak 15ean
Iker Lizaso Elizondo, uztailak 3an
Mikel Garcia Romeo, uztailak 17an
Elena Elustondo Azkue, uztailak 21ean
Mikel Indo Mujika, abuztuak 11ean
Aratz Madariaga Dorronsoro, abuztuak 17an
Holly Lertxundi Willis, abuztuak 20ean
Odei Ruiz Nieto, abuztuak 21ean
Maria Arantzazu Cotado Azkue, abuztuak 21ean
Garazi Lertxundi Arruabarrena, abuztuak 28an

UDAN EZKONDUTAKOAK

Frantzisko Maria Esnal Iruretagolena eta
Rosa Maria Irastorza Elorza, ekainak 13an
Pedro Juan Idarreta Igartua eta
Aranxa Garate Sorozabal, ekainak 13an
Joseba Manterola Esnal eta
Isabel Ikutza Oriden, ekainak 20an
Joakin Zinkunegi Irure eta
Jasone Garate Aierde, ekainak 20an
Jesus Maria Indo Lizarralde eta
Arrate Vazquez Illarramendi, ekainak 20an
Marcos Pardina Aragon eta
Marta Herrero Aramendi, ekainak 27an
Jose Manuel Azkonobieta Mitxelena eta
Lurdes Insausti Ortiz, ekainak 27an
Josu Albizu Elizalde eta
Sonia San Sebastian Loran, uztailak 18an
Luis Maria Etxabe Unanue eta
Mari Karmen Castillo Etxabe, abuztuak 1ean
Luis Fernando Berasaluze Uzin eta
Mari Carmen Ciriero Diaz, abuztuak 8an
Jesus Mari Arriaran Elkorobarrutia eta
Maria Belen Garate Etxeberria, abuztuak 8an
Luis Maria Azkue Oriden eta
Kontxi Zaldia Otegi, abuztuak 14ean
Miguel Blaquez De la Fuente eta
Nekane Tolosa Salsamendi, abuztuak 29an

OHINETAKOAK
POLTSAN

AREIZAGA

egin zure publizitatea
KarKara aldizkarian
☎ 83 15 27

ORIO

Marisko Biberoak

Ostalaritza Zerbitzua

Telefona: 13 12 97

-Angulak
-Mariskoak
-Arrai finak

autoak aukera
onean

AIA ORIO

Telefona: 13 04 38

GUTUNAK

Bull

Ez da ez ohizkoa, abuztuaren 30.ak egun digun harrera

ez eta ohizkoa ere, albisteak jakitean ohetik jekitzeko era

ez da posible, ezinezkoa! Bull ez, beste norbait! baina azkenean bera, bai, bera.

Begiak goibel, malko jarlo, aurpegi ilun, bihotz minbera

zoritxarren zoritxarrez etorri da lagunentzako galera

hamabostaldi batetarako joana zinen lanera zu ikusteke hamabost egun holek luzeak badira, gure bizitzek dituzten egun guztiak zer ote dira? zu zintugun lagun gindoazelarik hondartzara, juergara, nahliz mendira.

Gugandik urrun joanagatik oraindik ere nabari da zure lagunarteko giro epela

Eta guztioak ere ondo dakugu berriz ikusiko garela. Honekin esan nahi dugu oraindik gurekin zaudela, lagun bat ez da ahaztutzen enkargu bat bezela.

Zure kuadrila

Ezin lehertuz gabiltza begiko malkoa eta negarra ezin aldentuz gabiltza bihotzak jaso zuen zoritxarra lehen gure lagun sinaden lgor ta orain gure izarra zure dizdirak emango digu guri bizitzeko indarra.

Izar berri bat doa zerura eta ez gaude umorez gure gainean kokatuko da guri babesa emanaz zu bixitatuz zeru sapalra begiratuko del gaur zuk eskuminak bidal itzazu ondo zaudela esanez.

Batetik familia bestetik kuadrila hain zen mutil jatorra hain mutil umila Gillerma, Aitor, denok hau da negar pila Itziarren semea hori zen mutila jator ta umila ikusirik hila Itziarren semea hori zen mutila.

ODITZ

Endaia kalea, 1

83 00 89

OINETAKOAK

ERRUSTA taberna

Kriston bokadillok!!

TXAPELDUN ARDOAK

Almazena eta bulegoak

Eusko Gudari ORIO

Telefonoak: 83 59 52 83 03 86

Etxeak: 83 29 04 Faxa: 83 59 52

Gailur Bodegak

RIOJA JATORRIZKO DEITURADUN ARDOAK
ARDANDEGI SOLAR GAILUR

ERRASTI ANIAK

Bodegako Tfnoa: (941) 10 91 58

Carretera Villabuena

BAÑOS DE EBRO

"CAVAS HILL" ETA "ILAGARES" NAFARROAKO JATORRIZKO DEITURADUN ARDOAREN ORDEZKARITZA

Garai bateko txalupak (I)

Iragan igandean, hala behar eta, lagun artean aipatu genituen garai bateko arrantza txalupari zegozkion zenbait tresna, eta horiek papereratu nahian nator.

Patxi Oliden

TXALUPA txikatzearekin hasiko naiz, honetarako bi txikadera mota erabiltzen ziren; zurezko aska ba-tzuek, untzia azpi zapala bazen, goi irekia eta arrastan txikatzen zen, ura zuzenean kanporatuaz. Hain gehien bat anguletarako erabiltzen zen, "ala" izeneko untzietararako, bere kinten edo eskulekuarekin.

Bestea kaja formakoa zen, hau ere zurezkoa, karratua eta noski, bere kintarekin, ura hartu eta kanporatuz.

Noski, era honetara, ur gehienak ateratzen zitzaizkion baina ez zakar guztiak, eta ezta ere azken

kondarrak. Honetarako, erabili ohi zen «lanbasa» esaten zitzaiona. Lanbas hau, egur biribil bat (kirtena), besterik ez zen, beheko aldean hiltzez jositako zapi-diska batzuk zituena.

Lanbasa tresna moduan

Ikustekoa izaten zen, arrantzalea edo besteren bat lanbasa honen bitartez, txalupa garbitze lanak egiten. Busti uretan eta igurtzi berarekin txoko guztiak. Ondoren, hartu bi beso artean eta abiada haundia eraginez, bihurtzen zuten, indar zentrifugoz urak irteten zuela, noski lanbasa burua,

kareletik kanpo zela. Eguzki eguna zenean, hamaika aldiz egon izan ginen, honek ateratzen zituen ziprztinari begira, ostadarra, (ariko iris) ateratzen zelarik.

Berebiziko begirunea izaten zen txalupa jabeen artean. Norbait zabar xamarra gertatzen bazen, isekazko erratza (eskoba) eskeiniz, eta txalupa nork txukunago erabili.

Itsasora joan etorria, nahiz egunsentian edo bazkalondoa, arraunean egin behar izaten zuten:

bi lagun baziren, biak, bi arraunearekin.

Batzuetan, nola arraunean jatorriz, atzera begira egiten den, bi hauetako bat, gehienetan atzekoa, «botando» joan ohi zen, esan nahi dut, arraunean aurrera begira, badaezbada ere, beste zer bait

ez jotzearren edo txalupa hobeto gidatzeko.

Untzi txiki hauek, ez ziren gaur hain ezagun egiten zaizkigun sare tresnaz arrantzan ibiltzen, baizik eta esku arrantzan, nahiz arrai-txiki, (kabrak eta dontzeilak edo panekak), edo txipiroiak.

Garaian, berdel, txitarro eta balta ere andesatan. Honetarako, aurrena txipiroiak harrapatu behar izaten zituzten, beita edo karnatatza hau jarriaz amuan gero andesetarako.




Izarra

Bideo-produkzioak
Hi-Fi TV Bidcoak
LPak, CDak eta zintak

Izarra Atorrasagasti

Aritzaga kalea 5
Tfnoa: 83 38 81

**OLIDEN
HARATEGIA**
EUSKO GUDARI, 2
TFNOA 83 10 86

AZKENA



EZETZ EZAGUTU! lehiaketa

Goiko fotografia Donostian ateratakoa da aurtengo Kontxako bandera eskuartean dutela. Oraingo honetan eskatzen duguna zera da: arraunlariak ez diren hamar pertsonaren izen eta abizenak asmatzea.

Orain arte bezala, asmatzaileen artean afaria zozketatuko dugu bi lagunentzat **Itsas Ondo Jatetxean**.

Erantzunak **urriaren 20a** baino lehen bidali behar dizkiguzue betiko helbidera. Argi ibili, ze oraingo honetan denbora gutxiago duzue karta egiteko. Helbidea, dakizuenez, honakoa da:

KARKARA aldizkaria
Ezetz ezagutu! Lehiaketa
Herriko Plaza, 1 (Udaletxe atzeko karkara)

ITSAS-ONDO

Bataioak, jaunartzeak, negozio eta talde bazkariak



kaisa kalea, 7
ifnua: 13 11 79


KARKARA II LITERATUR LEHIAKETA

Orioko Udalaren babesaz

O I N A R R I A K

- 1.- Lehiaketara aurkezten diren lanak euskaraz idatziak izango dira.
- 2.- Lanak jatorrizkoak eta inon argitaratu gabeak izango dira. Ez da onartuko beste lehiaketaren batean saria jaso duen lanik eta, ezta, beste hizkuntzaren batean idatzia egon eta lehiaketarako euskaratutakorik ere.
- 3.- Lehiaketan parte hartzen dutenek Oriokoak izan behar dute edo Orion bizi eta 14 urte beteak izan.
- 4.- Lanen luzera librea izango da.
- 5.- Lehiaketak bi modalitate izango ditu: ipuina eta olerkia.
- 6.- Lanak aurkezteko era:
 - Lanak makinaz idatziak aurkeztu beharko dira.
 - Lanak, onartua izateko, titulua besterik ez du eramango agerian. Idazlearen izena ezin izango da inon aipatu. Lanarekin batera kartazal itxi bat aurkeztu beharko da, barruan egilearen datuak jasoko dituen eta kanpoan bere lanaren titulua besterik agertuko ez duena.
 - Adierazi beharreko datuak: egilearen izen-deiturak, adina, helbidea eta telefonoa.
- 7.- Sariak.
 - Ipuinen modalitatea.
 - 1. saria: 50.000.- PTA
 - 2. saria: 25.000.- PTA
 - 3. saria: 10.000.- PTA.
 - Olerkien modalitatea.
 - 1. saria: 50.000.- PTA
 - 2. saria: 25.000.- PTA
 - 3. saria: 10.000.- PTA
- 8.- Epaimahaia. Epaimahaia KARKARA aldizkariko kide batek, Udaleko Euskara-Batzordeko kide batek eta Udal Euskara-Zerbitzuko Teknikariak osatuko dute.

Epaimahaiak hutsik utz ditzake sariak.
- 9.- Lanak aurkezteko tokia eta epea. Lanak Udaleko Euskara-Zerbitzuan edo KARKARA aldizkariaren lokalean aurkez daitezke. Lanak aurkezteko azken eguna **1992ko urriaren 30a** izango da.
- 10.- KARKARA aldizkariak eta Orioko Udalak berea izango dute saritutako lanak argitaratzeko eskubidea. Gainontzeko lanak itzuli egingo zaizkio eskatzen dituenari.



P. Saisamendi